

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **7/2025 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoaren 2022ko ekitaldiko kontu orokorra onartzen duena**

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2025eko ekainaren 25eko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila “7/2025 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoaren 2022ko ekitaldiko kontu orokorra onartzen duena”, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 25a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

#### **7/2025 FORU ARAUA, EKAINAREN 25EKOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2022KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA ONARTZEN DUENA**

##### **ZIOEN AZALPENA**

Behin Foru Gobernu Kontseiluak Arabako lurralde historikoaren 2022ko ekitaldiko Likidazio Kontu Orokorra onartu ondoren, Arabako lurralde historikoaren Kontu Orokorraren espedientea egin da. Hura onartzea Arabako Batzar Nagusiei dagokie, abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoaren, 116. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**ARTIKULU BAKARRA.** Arabako lurralde historikoaren 2022ko ekonomia ekitaldiko kontu orokorra onartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 25a

*Lehendakaria*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**